

GARIZUMA EZ BADUGU ERE, GOGOETA GARAIA

Aspaldi honetan, urteari ofizialki hasiera urtarrilaren 1ean ematen badiogu ere, iraila izaten dugu, ezinbestekoa gertatu zaigun udako oporraldiaren ondoren, ekitaldi berrien abiaburu. Hainbat eta hainbat alorretan irailean ematen zaie udaldiko etenduraren ondoren urteko zeregin ezberdinei hasiera.

Euskarari dagokionean areagotu egiten da esan berri dugun hori. Egin-eginean ere irailean ematen zaio hasiera ikasturte berriari. Iraila dugu, bada, egitarau berriak martxan jartzen direneko hila. Euskara ikasteko eskaintzarik ugari plazaretzen da ikasturte berriaren atarian, aukerak eta deiak hor-hemenka aldarikatuz.

Euskararen etorkizunaz aspaldidanik kezkatuta gabiltzanok, gogoetak eta ebaluaketak egiteko hila izan ohi dugu iraila. Hain zuzen ere, ezinbestekoa dugu, bide berrietatik abiatu aurretik, non aurkitzen garen, norantz goazen eta zelako abiadura dugun begiratzea, horrek baldintzatuko baitu gure hausnarketa eta argituko hartu beharko ditugun bideak.

Gogoeta hauetan gaur egungo beharrian zehatzak azaltzera jo aurretik, buruan hausnarketaren abiaburuan dugun sakoneko itaunari, hots, ea euskarak etorkizunean gizarte modernoan lekurik izango duen aurrez aurre jartzeari begiratu behar diogu.

Nire uste apaletan, aldizkari honetan, beste noizbait esan izan dudan bezala, azkenaldi hauetan sarriegi entzuten ditugu euskararen iraupena irakaskuntzari loturik dagoela eta antzerako leloak. Eta hori, ez dela horrela ondo baino hobeto dakigunean! Hainbat herrialdetako eskarmentuek euskarak iraupen biderik izatekotan gizarteko alor guztietara hedatu eta egokitu beharra duela adierazten digutenean!

Euskararen ezagutza maila handitu egin dela, egunerik egunera euskara gehiago erabiltzen dela eta horrelakoak entzutean harrituta geratzen naiz, euskaldun zahorrok azken urteotan inguru gehienetan atzerakada nabaria somatzen baitugu. Behar bada, euskaldunen ugaltze hori hala izango da estatistika hutsei begirata, baina eguneroko bizitzan, euskararen geroa beraien esku dutela eta hain goraiatuak diren haur-gazteengan, behintzat, ez.

Oraintsu arte, euskara hutsezko hainbat gune genituen gazteen bizitzan, gure herri txikietan, batik bat, baserri giroan. Orain komunikabideen zein eskolalagun erdeldunen eraginez, euskara hutsean bizitzen ohitutakoek ere erdarara makurtu behar izan dute.

Euskararen etorkizuna ezin dela haur-gazteen esku utzi adiztera emateko ikaskide izan nituen zenbaiti gertatua gogoratu eta azaldu nahi dizuet. Ikastetxean, Nafarroako hainbat ikaskide izan nituen. Batzuk familia euskaldunetako semeak izan arren ez zekiten ia tutik ere euskaraz. Ez nuen ulertzen nola gerta zitekeen hori, gurasoak etxean euskaraz eginez.

Alboan luzaroan lagun izan nuen ikaskide batek argitu zidan berari gertatua kontatuz. Txikitan euskara baino ez omen zekien; eskolara joan eta gaztelera erabiltzen hasi zenean galdu omen zuen pixkanaka-pixkanaka euskaraz egiteko erraztasuna, gurasoak beti euskaraz egiten zioten arren berak gaztelera erantzuten zielako. Bere anaiei berdin gertatu omen zitzaien haurtzaroan, baina, basoan aldi luze batetan lanean ibiltzean guztiz euskaldunduta etxeratu omen ziren. Berak halako aukerarik izan ez zuenez, ez zekien hitz egiteko beste euskara.

Norbaitek, agian, hori irakaskuntza erdara hutsean egitearen ondorioz izan zela uste izango du. Izan daiteke, hainbatetan, baina ez horregatik bakarrik. Nik neuk ere irakaskuntza erdara hutsean jaso nuen, baina eguneroko bizitzako harreman guztiak euskara hutsean izatean ez nuen halako ondoriorik izan. Nire ustetan, inguruko erabilera-munduaren erreferentzia galtzen duenean joaten da hizkuntza, maldan behera leize beltzeko heriotz zulora.

Edozein hizkuntzak iraupena ziurtatu nahi badu, eguneroko bizitzan txetattua egon behar du, nonbait. Ez da nahikoa neurri batzuk jartzea. Esaterako, gaur egungo euskaldunok hainbat habiabide (ETB, Ikastola, Egunkaria, Liburuak, Aldizkariak...) esku artean ditugun arren, euskarak ez du harako guzti horiek itxura batetan agertzen duten adineko aurrerakadarik egin gizarte mailan. Hori dela eta, gogoeta edo hausnarketa egin beharra dugu, etorkizunean Euskal Herria herri euskalduna izatea nahi baldin badugu, behinik behin.

Orain dela gutxi, Mari Karmen Garmendia andereak PSOE, AP eta UAko politikari batzuk euskara ikasten hasiak izatea (zer esanik ez, politikoki onurak eskuratzeko asmoz) gorai-patzen zuen, egintza hori aurrerapausu handitzat jotzen zuelarik. Hainbeste urtetan, aukera guztiak esku artean izanda, euskara ikasi nahiean ibili ondoren, orain ikasteak ez dut uste hainbesteko meritua duenik! Beste makinatxok ere ikasi izan dute politikari horiek baino laguntza gutxiago izan arren. Horrek, agian, azken batetan konturatu direla zer nolako jarraipide kaltegarria eskaintzen ari ziren emango luke aditzera.

Egia esan, jarraipide benetan txarra eskaintzen diote gure herriari goi mailetako politikari gehienek, jendearen aurrean erdara hutsean edo eta, inoizka, euskara kaxkarrean mintzatzerakoan. Eta, jakina, ispilu zikinak ezin irudi gardenik isladatu. Lehenago, euskara baserritar edo arrantzale atzeratuen mintzairatzat jotzen zen; gaur egun, erdi txoraturik ari diren hiru edo

lau burugogor, atzerakoi, aseezin edo eta "fundamentalisten" egintzatat edo.

Bestalde, hizkuntzaren etorkizunean hitzunen kontzientzia-zioak eta atxekipenak eragin erabakiorra baldin badute ere, ez da nahiko hori, baliabide egokiak jartzen ez badira. Eta baliabideak botere politikoek erabakitzen dituzte eta, bete ere berriak betearazi beharko dituzte. Ezer gutxirako izango dugu "Euskararen legerik onena" egitea, gero, urteak joan urteak etorri egia bihurtzeko beharrezko neurriak (behar bada itxurak betetzeko huskeria batzuk bai) hartu ezik.

Inon izan bada hizkuntza benetan maite izan duen jende porrokaturik Euskal Herrian izan dugu. Gure arteko gizon-emakumeek etengabeki ihardunez, neurtu ezin beste ordu, diru eta ahaleginak jarri izan dituzte euskararen iraupena ziurta-tu nahian. Adibide ezin argiagoa dugu ikastolen eta adineko pertsonen euskalduntzea bultzatzen eginiko saioaldiek. Ahalegin eskergaitz horiei ez diete behar adineko laguntzarik eman gure agintariak.

Honetaz, baina, zer aitzurtu ugari dugunez, jo dezagun berriro ere harira. Egin-eginean ere irailean hasiera izan hi duten egintza nagusi horretara. Esan bezala ikasturtearen hasieran aurkitzen garenez, hausnarketa batzuk egin nahi nituzke, bereziki euskararen etorkinean izugarrizko eragina duten bi alorri buruz. Lehenago ere aldizkari honetan jorratuak izan diren arren, ez dugu gaizki izango bidearen nondik norakoak zuzendu beharrik baldin badugu hala egiteko.

a) Irakaskuntza:

Irakaskuntza, nire ustetan, zenbaitek esandakoaren kontra, euskararen etorkinaren euskarri nagusia ez baldin bada ere, zer esanik ez, ezinbesteko urrats dugu jakintzen transmisioa (beraz hizkuntzarena ere bai) eskola bidez egiten den egungo gizartean. Hori dela eta, edozein ikasturteri hasiera

ematerakoan, barra-barra etorri ohi zaizkigu ehundaka eta milaka galdera burura. Haur-gazteak egunotan hasiera emango dioten ikastaldiak zer nolako eragina izango ote du euskararen etorreran? Nola txertatuta ageri zaigu euskara irakaskuntza alorrean? Zer behar dugu gure arteko irakaskuntzak, haurrak eta gazteak egiatan euskaldun egiteko bide izan dadin? Onar daiteke ikasketa-prozesu luzea bukatzerakoan zenbait gaztek gutxienezko maila batetan, behinik behin, euskararik ez jakitea? Ez luke horrek elebitasunaren porrota adieraziko?...Igazko urtea, ikastola-eskola publikoen arteko bateratasuna zela eta, oso nahasia izan genuen. Aurtengo urte honetan, "erreforma" dontsua jarriko omen da ibilbidean. Eta honek kezkarik ugari sortu izan du irakaskuntza munduan lanean ari diren euskaltzaleen artean. Hain zuzen ere, erreforma hori planteatzerakoan, bigarren mailan utzi izan delako euskarari eman beharreko tratamendua. Banandu izan diren txostenak eta eman izan diren ikastaro gehienak gaztelera hutsean aurkeztu dira eta hori euskara "Autonomi Elkarteko" hizkuntza ofiziala izanik!

Baina utz ditzagun alde batera, euskararekiko ardura eza handia aditzera ematen baldin badute ere, kontu tekniko horiek beste norbaitek astiroago eta sakonago azter ditzan. Niri, kezkarik larriena, Buesa Jnak ageriko egin berri dituen datuak sortu didate. Hain zuzen, Autonomi Elkartean ikasle berriek jasoko beharko duten euskarari emango zaion lekua zehazteak.

Azken aldi honetan, behin eta berrero, aurrera goazela, euskarak urterik urtera leku zabalagoa duela irakaskuntzan, horren emaitzak nabarmentzen ari direla eta beste horrelako zenbait lelo goxo loeragile belarrietara heldu zaizkigunean, egonezin bizia sortu didate euskarak gaur egun Elkarte Autonomoko irakaskuntzan duen tratamenduari buruz Buesa Jnak ageriko eginiko datuok:

- a) Eskola Aurrean 40.293 ikasle B/D ereduetan eta 12.364 ikasle A ereduak.

- b) Oinarrizko Heziketa Orokorrean: 106.696 ikasle B/D ereduetan eta 74.286 A ikasle ereduuan.
- c) Unibertsitate aurreko urteetan (BBB/UBI) 36.383 ikasle B/D ereduetan eta 125.505 ikasle A ereduuan.

GUZTIRA: 212.152 ikasle A ereduuan; 71.217 ikasle B ereduuan eta 112.155 ikasle D ereduuan .

Azken urte hauetan zazpi puntutako igoera izan omen dute D ereduaren alde eginiko aukerak. 1991/92.ikasturtean %23,6 omen ziren D ereduari ziren ikasleak eta ikasturte honetan %30,4 omen dira.

Nafarroan ere gorantz egin omen dute ikastolen aldeko eskaeriek, une honetan, 94.600 ikasleen artean 13.600 ikasle ari direla ikasketak euskaraz egiten; igaz baino 400 gehiago, nonbait.

Aurreko datuon arabera, hasierako mailetan ikasketak euskaraz egiten ari direnen kopuruak nabarmenki gorantz egin badu ere, benetan kezkarri dugu Unibertsitate aurreko goi mailetako urteetan (BBB/UBI) hainbeste ikaslek, A ereduari ikasten arituz, behar adineko euskara maila lortu gabe amaituko dutela nahitaezko ikasketa prozesua aldeztu aurretik jakin eta horri konponbidea jartzeko ezer ez egiten ikustea.

Nolako neurriak hartuko ditu, bada, administrazioak, legalki A ereduari ikasketak egin dituztenek euskara gutxienezko mailan jakin beharra izanik, behetan ikas dezaten? Hau da, hiru edo lau urteren buruan beharrezko ikasketak bukatuko dituzten 125.505 euskaldundugabe horiek euskalduntzeko? Hainbeste urtetan zehar euskara zelan edo halan ikasten erabili ostean eginiko inbertsio osoa alferrik galtzen utziko ote dugu? Ez da gero txantxetakoa! Hainbeste ordu, hainbeste irakasleren soldata, hainbeste...!

Zer esanik ez, aparteko ahalegina egin eta aukerak emanez talde handi honetako gehiengorik handiena guztiz euskalduntzeko neurriak jarri beharko lirateke, ikasketa garaian urterik

urte eginiko ahaleginak osotuz eta eginiko inbertsioari etekinak ateratzeko bideak jarritz.

Baina, era berean, norantz garamatza helburuak lortzeko baliho ez duen A eredia mantentzeak? EKB-k aspaldidanik eta EHE-k oraintsu A ereduaren aurka eginiko kanpaina zenbait politikarik gogor kritikatu dutela ikusiz, badirudi ez dela nahi erremediorik jarri nahi.

Egia esan, euskara Autonomi Elkarteko hizkuntza ofiziala izan arren, zenbait ikastetxetan, A ereduan, euskararen irakaskuntza atzerriko hizkuntza baino askozaz baldintza txarra-goetan eskaintzen da. Lehenagoko "maria" deituriko ikasgaien antzerako zerbait baino ez dugu. Nola euskaldundu, baina, irakaskuntza-aldia euskaldundu gabe amaitzen duten gazte horiek? Euskaltegiekin lankidetzan, adinekoen euskalduntze-biderra eramanez edo eta beraiantzako ikastaro bereziak antolatuz.

b) Adinekoen euskalduntzea.

Gorago esan dudanez, ezin dugu euskararen etorkizuna haur-gaztetxoek gain utzi. Berezkoa izango dugu, bada, euskaldunok bai gazte-haurren gurasoen bai adineko beste erdaldunen euskalduntzeari aparteko arreta ematea. Argi ikusten dugu ezingo dutela gazte-haurrek euskararik menperatu ez eta euskaraz bizi, inguruko giroa gaztelera hutsezkoa baldin bada. Eta horretarako Euskal Herriko adinekoak ere euskalduntzeko ahaleginak egin behar. Ezinbesteko baldintza dugu, bada, hizkuntz transmisiorako, iraupenerako, adinekoak, bereziki haur-gaztetxo horien gurasoak euskalduntzen saiatzea.

Nekez euskaldunduko ditugu haurrak eta gaztetxoak euskaraz bizitzeko beharrezkoa duten euskal girorik inon aurkitzen ez badute. Bizirik irauteko ez da nahikoa izaten bizi nahi izate hutsa; baliabideak ere erabili beharra izaten dira. Eta egoera

zenbait eta larriagoa izan hainbat eta baliabide indartsuagoak eta eraginkorragoak beharko dira, gainera.

Nola dugu, baina, adinekoen euskalduntze alor hau gaur egun? Nahikoa urrats eman ote da euskararik ez dakitenei beren buruak euskalduntzeko benetako aukerak eta erraztasunak emateko?

Honetan, negargarria izan dugu azken urteotan agintariek, alor guztiak kontrolatu nahiean edo, erakutsi duten jokabidea. Sarritan, lagundu egin beharrean oztopoak jartzeari ekin diote. Hala ere, badirudi, azkenean, bide berrien ateetan aurkitzen garela AEKk eta Eusko Gobernuak aurtengo udaberrian lortutako akordioaren ildotik.

Hain egoera larrian daukan hizkuntza berreskuratu nahi duen edozein herrik, Israel herriak egindakoen antzeko inbertsioak, ez nolana hikoak, egin beharko ditu. Gure egoera ezberdina izanik hemen halako plangintzarik martxan jarri ezin bada ere, laguntza oparagoak eskaini beharko lirateke euskarara ikasteko gogoia dutenek, zeregin eta ahalegin horietan ahalik eta eragozpenik gutxien izan dezaten.

Aberriaren iraupenaren aldeko inbertsiorik garbiena genuke euskalduntzearen aldekoa, Euskal Herriak euskaldun jarraitzen duen adinean eutsiko baitio abertzaletasunari. Hor ditugu Quebeceko azken hauteskundeetako emaitzak. Orain ari dira, nonbait, hizkuntza alorrean eginiko inbertsioen etekinak eskuratzten. Euskararen aldeko apostu hau, abertzaleok, edozein delarik gure ikuspegi politikoa, inoiz ahaztu behar ez genukeen zera dugula uste dut.

Egun hauetan alde guztietan zabaldu izan da adinekoentzako euskarako eskolen aldeko propaganda. Jo eta ke ekin diote, gure artean alor horretan lanean ari diren taldeek: AEK-k, Udal Euskaltegiek, IKAK,.... Hala ere, tamalez, ez dugu, oraindik, legearen arabera alor horretan euskarako eskolen bideratzaile, zuzentzaile eta bultzatzaile izan beharko lukeen HABE

erakundearen propagandirik ikusi. Ez ote da zeregin hori, batez ere, beraien ardurapeko zera? Non dira, jendea euskara ikastera animatu beharko luketen gure erakundeak? Ikastaroen propaganda ere bakoitzak bere pentsutan egin behar?

Bestalde, gorago esan den bezala, gogoeta sakona egin beharra dugu euskalduntze plangitzetan egiten den inbertsioari eraginkortasunik handiena ateratzeko. Jokatu ere, gizartean non dugun aukerarik egokiena eta zein den preminarik handiena kontutan hartuz jokatu beharko genuke, ahaleginak alferrik ez galtzeko.

Euskara ikasi nahi duen edozein herritarrek, horretarako daukan eskubidea gauzatzeko laguntzak izan behar baditu ere, askozaz laguntza zehatzagoa eskaini beharko dizkiegu euskararen berreskurapenean aparteko eragina izan dezaketenei. Gaurkoan bi talde aipatu nahi nituzke bereziki, euskararen etorkizunerako eragin handia izan dezaketelako:

1) *A ereduan ikasketak eginiko gazteak*. Ikastetxeetan euskara ikasten aritu ondoren, nahitaezko ikasketak bukatzerakoan euskara maila egokia lortu ez dutenak. Egin-eginean ere, gorago aipatutako BBB eta UBiko 125.505 gazteak. Ezin dira alferrik galdu hainbeste ikasturtetan zehar eginiko inbertsio eta ahalegin handiak. Gazte horiei, urteetan zehar eginiko ahaleginak behin betirako burutzen lagundu behar zaie. Honetan, Udalek, Ikastetxeek, Hezkuntza Sailak eta HABEK elkarlanean aritu beharko lukete, lan horretan diharduten euskaltegi guztiekin lankidetzan, behar diren baliabideak jartzeko.

2) *Ikastetxetako haur-gaztetxoek gurasoak*. Edozein delarik haurrak jarraituko duen hizkuntz eredu, ikaste-prozesu luze bati ematen dio hasiera euskara ikasten hasten denean. Haur horrek, laguntzak jasoten dituen adinean lortuko du ahalegin txikiaren bidez emaitzarik handiena. Horretarako, ezinbestekoa izango du ahalik eta ingurugirorik euskaldunena izatea.

Eta horretan, zeresanik ez, zerikusi handia izango dute haurren gurasoek. Hori dela eta, betidanik (emaitza hobezinak frogatu ditugu Santutxuko auzoan) defendatu izan dut aparteko garrantzia duela haurren gurasoek ere euskara ikastera ekartzek. Horrek, gurasoak euskara ikastera bultzatzeaz gainera, haurrek daramaten hizkuntz-ikasketa prozesuan inplikatzeari ekarri beharko luke. Hori egitea lortu duten ikastetxeetan izugarrizko aurrerakada nabaritu izan da haurrengan.

Baina, hain fruitu ederrak eman izan dituen prozesu hori martxan jartzeko, euskarako eskolak gurasoei komeni zaien ordutegietara eta ordu zein ikasle kopuruetara egokitu beharra dago. Beraz, honek, HABE legeak dituen artikulua batzuk aldatu eta, bide batez, ikastetxeak inplikatutako beharra eskatuko luke. Behar bada unerik onenetarikoak dugu oraingo hau, eskola-haurren kopurua gutxitzeak ikastetxeetan halako eskolak martxan jarri ahal izateko aulak izatea ekarri duelako.

Dena den urrats berri guzti hauek, orain arteko jokaerak aztertuta eta bide berriak irekitzeko gogoia eta ausardia eskatzen digute. Gertu izango ote ditugu agintariek gure herria euskalduntzeari benetako bultzada emateko? Noiz aitortuko zaio euskara ikasi nahi duenari, benetan, horretarako duen eskubidea, behar adineko laguntzak eskainiz? Inbertsio handirik gabe ezinezkoa izango dugu gure Herri erdaldundu hau euskalduntzea. Gure etorkizunean ekonomia bezain garrantzitsua dugu hizkuntza, gure nazio-izaeraren muina baitago jokoan. Samin sakona sortzen dit Autonomia martxan jarri zenetik hainbeste urte iragan ostean oraindik honelakoak gogoratu behar izateak!

Berriro ere, ikasturte berri honen hasieran zenbait gogoeta egin beharra dugula esan beharrean nauzue. Hil edo biziko burruka honetan ez dira nahikoa, beharrezkoenak baldin badira ere, pertsona bakoitzaren jarrera eta ekimen hutsak. Gure Herriko maila ezberdinetako agintariek, egiten dutena baino hainbat gehiago egin beharko lukete.

Euskara berreskuratzeko baliabide oparoak jarri behar dira. Esaterako, Euskal Telebistak jendea euskara ikastera bultzatzeko programa bereziak egin beharko lituzke, futbola eta horrelakoekin orduak betez beste telebista kateekin nork ikusentzule gehiago lortu lehia bizian ibili gabe. Euskararen iraupenerako euskarri izateko asmoz sortu baldin bazen, zergatik ez erabili benetan horretarako?

Estatistikek, agian, gure buruak asetuko dizkigute geroago eta euskaldun gehiago garela, euskarak geroago eta leku zabalagoa duela gizartean eta honelako lelo goxoak belarrira kantatuz, baina bihotzak, eguneroko bizitzak hori ez dela horrela esaten digu. Begiratu eta ikusi baino ez daukagu. Gure herriak geroago eta erdaldunagoak ditugu. Euskararen eremua ezagutza-kopuruetan %5 edo %10 edo eta %20 zabaldu bada ere, kontutan izan dezagun erderen eremua, finkapenean ez ezik kopuruetan ere, %99 edo %100 zabaldu zaigula. Erremedioetan atzeramenduetan ibiltzeak gerora konponezina ekar dezake.

Irakaskuntzako eredueta euskara-prozesua berraztertu eta adinekoen euskalduntzeari gogor ekiteko garaira heldu garela eta nauzue. Konturatuko ete dira gure agintari abertzaleek? Hala, beste behin ere, muzin egingo ote diote hain premiazkoa dugun euskalduntze plangintzari?

Eranskinak: Gogoetarako idatzitako aurreko lerro nahasiei amaiera emateko eta irakurleei adineko pertsonen euskalduntzeari buruzko datu batzuk eskaintzeko, jarraian, alor honetan Euskal Herri osoan lanean diharduen talde bakarraren, AEKren eskutik jaso ditudanak bildu nahi izan ditut.

"Bukatu berri den 1993-94 ikasturtean zehar 30.451 matrikula izan zituen Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK), igaz baino 1.716 gehiago, hau da, %6ko igoera eduki du matrikula kopuruak. Kopuru honetan sartzen dira Euskal Herri osoan (EAEn, Nafarroan zein Iparraldean) ikasturtean zehar egindako mota guztietako matrikulak: urritik ekainera bitartekoak (urte osokoak, lau hilabetekoak zein hiru hilabete-

koak), udakoak, negu zein udako barnetegietakoak, ikastaro bereziak etab.

Esan beharra dago matrikula kopurua ez datorrela bat ezinbestean ikasle kopuruarekin. Ikastaroak iraupen desberdinetakoak dira, lehen esan bezala, eta beraz litekeena da ikasle berberak, ikasturtean zehar matrikula bat baino gehiago egitea.

Igazko urritik aurtengo ekainera 27.293 izan dira AEKn egindako matrikulak, aurreko ikasturteko datuekin aldaraturik %6,97ko igoera suposatzen duela. Udako hilabeteetan aldiz 2.362 matrikula izan dira, igaz baino %3,8 gutxiago. Barnetegietan, bestalde, 796 matrikula egon dira, igaz baino %4 gehiago.

Herrialdeka Bizkaiak du matrikula kopururik altuena (17.833, igaz baino 755 gehiago). Arrazoi demografikoez gain, kontuan hartu behar da herrialde honetan pisu gehien duten ikastaroak hiru hilabetekoak direla gainontzekoetan urte osokoak direlarik. Hala ere, esan beharra dago azken urteetan gero eta pisu handiagoa hartzen ari direla urte osoko ikastaroak Bizkaian.

Gipuzkoan 4.446 matrikula egon da ikasturtean zehar (aurrekoan baino 590 gehiago). Iparralden ere igoera nabaria dugu (1.037 matrikula, igaz baino 160 gehiago). Araban 1.730 matrikula ditugu (225 gehiago) eta Nafarroan 4.604 (50 gutxiago). Nafarroan nozitutako jaitsieraren arrazoia uda ikastaroetan izandako moteltzean datza, urritik ekainerako ikastaroetan aurreko urtean baino 28 matrikula gehiago egon baitziren.

AEKarekin ustez, datu hauek orokorrean positiboak dira azken urteotan AEK izaten ari den gorantzako joera birbaieztatzen dutelako. Datu hauen argitara AEKko kideok eta orohar euskaltzale guztiok badugu itxaropentsu izateko arrazoirik hasi berri dugun 94-95 ikasturterako matrikulazio kanpainaren aurrean, irail osoan irauin eta "¡Lo que te están perdiendo!-Euskalduna izateak merezi du" lemapean burutzen ari dena.

Hau guztia lortzeko, AEKk urteetako ikerketa eta lanaren ondorioak euskarara hurbildu nahi duten guztien esku jarriko ditu, zerbitzurik onena eta eraginkorrena eskainiz. Arlo honi dagokionez, berrikuntza dextente dakar aurtengo ikastaroak. Hamar euskaltegi berri zabaltzeko asmoa du Koordinakundeak: Barakaldon, Leioan, Gasteizen, Donostiako Amara auzoan, Trapagan, Santutxun, Ermuan, Zumaian, Altsasun eta Ondarroan. Azkenengo honetan udalarekin sinatutako akordioaren ondorioa izango da. Udalekin hitzarmen berezien bidea jorratzen segitzeko asmoa du AEKk, Amurriokoarekin lorturikoak erakusten duenez.

Honez gain, bi gau eskola berri zabalduko ditu AEKk Iparraldean, Baigorri eta Hiriburun, eta aurten bultzada berezia eman nahi zaio negu barnetegien arloari. Forun (Bizkaia) barnetegi berria zabalduko da, euskara ikasteko azpiegitura bikaina duen eskualdean kokatua eta bertan egun osoz izango diren ikasleei ahalik eta baldintzarik onenak eskainiko dizkiena."

Urtero legez, Euskal Herriko Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) 1994-95 ikasturterako prestatu duen matrikulazio kanpaina aurkeztu zuen Bilbon egindako prentsaurrekoan. Aurtengo leloak "¡Lo que te estás perdiendo!-Imagine un peu ce que tu perds!-Euskalduna izateak merezi du!" ditugu. Aipatu aurkezpenean Euskal Herri osoko AEKko arduradunek esku hartu zuten: Xabier Ugalde Arabakoak, Erramun Osa Bizkaikoak, Juan Mari Larrarte Gipuzkoakoak, Jakes Borthairu Iparraldekoak eta Elena Etxalar Nafarroakoak.

Juan Mari Larrartek leloak eta mezua azaldu zituen: "askotan esaten da Euskal Herrian bizitzeko erdara nahikoa dela, baina ez da azaltzen euskara ez jakiteagatik erdalduna zer galtzen ari den. Gaur egun, gero eta ugariagoak dira euskaraz plazaratzen diren kultura adierazpenak, komunikabideak, literatur lanak, musika ekoizpenak, milaka lagun mugitzen dituzten bertso saioak... Eta noski, euskara ez dakiena mundu hori ezagutu eta gozatzeko aukera galtzen ari da. Horri esan nahi diogu "¡Lo

que te estás perdiendo!”, bai eta mundu horretara hurbiltzeko gonbitea luzatu ere”.

Euskaldunei ere zuzentzen zaie AEKko kanpaina “Euskalduna izateak merezi du” lemaren bidez: “euskaradun izatearen balioa azpimarratu nahi dugu eta, aldi berean, berak bizi duen euskararen dimentsioa zabaltzeak merezi duela eta orain dela garaia adierazi. Hori dela eta, batez ere euskarazko prentsa idatzira hurbiltzeko gonbitea egingo diogu, eta euskaraz idatzitakoa aise ulertu eta gozatzeko aukera eskaintzeko asmóz ikastaroak antolatuko ditu AEKk herri euskaldunetan”.

Erramun Osak Euskal Herriak bere hizkuntzaren alde egingdako apostua azpimarratu zuen, berreuskalduntze prozesu horretan pertsona helduen betekizuna nabarmenduz: “euskararentzat ez dago belaunaldi galdurik, eta zailtasunak egon badaitezke ere, orain arte milaka pertsona nagusi euskaraz mintzatu eta bizitzera iritsi izanak erakusten digu posible dela hasitako bidea arrakastaz burutzea eta gure historian eta kulturatan partaide izatera heltzea”.

Matrikulazio kanpaina honen zioa, lehen eta behin oraindik euskararik ez dakitenei aukera aparta galtzen ari direla ohartaraztea da, baina baita ere euskaldun garenói eginiko deia ere. Euskara bizitzako egoera berrietara egokitzen ari denez, denok sailu beharko dugu hitz berriak ikasten eta bizi dugun ingurua euskalduntzen.

Honetarako, 25 urte luzeetan pilatutako esperientzia jarriko du AEKk bere euskaltegi eta barnetegietara hurbilduko diren ikasle guztien zerbitzuan. Gramatika arauen eskurapenean oinarritu ordez, AEKk komunikazioan oinarrituriko metodoak lantzen ditu, euskara ikasteaz batera langiroan zein lagungiroan erabiltzera bultzatuz, euskara ikasi nahi duen ororentzat prozesua ahalik eta errezena bilakatu nahiean.

Denon haleginak beharrezkoak dira euskararen berreskurapenerako hain erabakiorra den helduen euskalduntze-alfabe-

tatze arloari bultzada berri bat emateko. Denok dugu gure erantzunkizuna, eta hilabete honetan AEKk martxan jarri duen matrikulazio kanpainak horretarako aukera eskaintzen digu: oraindik euskararik ez dakitenek matrikulatu eta euskara ikasiz; euskaldun direnek, dakiten euskara hori hobetuz eta orain arte gure hizkuntzak galerazita eduki dituen esparruetara ere eramanez, euskal prentsa irakurri eta ulertuz esaterako; eta euskaldun oso garenok, euskaraz nonnahi eta noiznahi mintzatzeaz gain, inguruko lagun erdaldunak ikastera bultzatu eta animatuz.

“Zuhaitza nolakoa, halakoa fruitua” esan ohi da. Guri ere, gogoeta honen ostean, gure fruitarboalak nolako fruituak ematen ari den begiratzea baino ez zaigu geratzen.

Patxi Uribarren